



TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA

2017KO EKAINAREN 6AN BATZARRAK EGIN ZUEN EZOHIKO BILKURAKO AKTA.-

Adunako udaletxeko Kultur aretoan egin du bilera 2017ko ekainaren 6an, arratsaldeko 19:20etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): Carlos Ugartemendia Leunda
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Agirrezabala
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala
ANOETAKO UDALA (%3,09): Pedro M^a Estanga Lasa
ASTEASUKO UDALA (%2,49): Joseba Txapartegi Nieve
BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Luis Lopez
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
IRURAKO UDALA (%2,73): Jesus Maria Alonso Insausti
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (% 0,54)
ALKIZAKO UDALA (%0,61)
AMEZKETAKO UDALA (%1,58)
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)
ELDUAINGO UDALA (%0,39)
GAZTELUKO UDALA (%0,28)
HERNIALDEKO UDALA (%0,57)
IBARRAKO UDALA (%6,95)
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76)
LEABURUKO UDALA (%0,61)
ORENDAINGO UDALA (%0,32)
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. Mankomunitateko Idazkariaren izendapenaren berri ematea.**
- 2. 2017ko apirilaren 26ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 3. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20170425.018tik LE20170530.026ra.**
- 4. 2017ko apirilaren 12ko, Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Batzar Orokorreko Lehendakariaren ondorengo Ebazpena inpugnatzea: Gipuzkoako Ingurumen gunearen diseinu, eraikuntza, finantziario, operazio eta mantentze kontratuaren esleipena.**
- 5. 2016 ekitaldiko aurrekontuko kontu Orokorren onespeneren proposamena.**
- 6. Galde-erreguak**

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari.

Lehendakariak Alkiza, Amezketa, Gaztelu, Hernialde, Ibarra eta Ikaztegietakordezkaritza gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetoako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ALKIZAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
AMEZKETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
GAZTELUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
HERNIALDEKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.
IBARRAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
IKAZTEGIETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. Mankomunitateko Idazkariaren izendapenaren berri ematea.

Lehendakariak honela azaldu du hitzez hitz: “Aurreko Batzarrean komentatu genuen, Jose Luis Unanue jubilatzen zela, urte asko pasa eta gero Mankomunitateko Idazkari postuan. Etorkizunera begira, planteatu beharko dugu Idazkari edo Idazkari-Kontuhartzaile postua, nola bideratzen dugun modu finko batean, baina hori erabaki bitartean, Maider Amadok jarraitzen du Mankomunitateko kontuhartzaile izaten, eta, pasa den hilabetean Leire Arteaga Zumeta, Adunako Idazkaria, izendatu ondoren Mankomunitateko Idazkari bezala, ondorengo hilabeteetan berak beteko du Idazkari postua Tolosaldeko Mankomunitatean.”

Batzarra, jakinaren gainean geratu da.

2. 2017ko apirilaren 26ko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan adierazitako akta ahobatez onartu da.

3. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20170425.018 zenbakitik LE20170530.026 zenbakira.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20170425.018	LE20170515.021	LE20170518.024
LE20170428.019	LE20170515.022	LE20170519.025
LE20170515.020	LE20170518.023	LE20170530.026

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

19:26an Alegiako Udaleko ordezkaria sartu da.

4. 2017ko apirilaren 12ko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko Batzar Orokorreko Lehendakariaren ondorengo Ebazpena inpugnatzea: Gipuzkoako Ingurumen gunearen diseinu, eraikuntza, finantziario, operazio eta mantentze kontratuaren esleipena.

Lehendakariak honela azaldu du hitzez hitz: “Dakizuen bezala, lehenagotik ere, Tolosaldeko Mankomunitateak, prozeduran zehar eman diren pauso ezberdinak inpugnatu ditu, bai bideragarritasun azterketa, bai aurreproiektua eta baita Baldintza plegu Administratiboak ere.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrek, 2017ko apirilaren 12an, Gipuzkoako Hondakinen kontsortzioko Lehendakariaren Ebazpenaren berri eman zuen Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1 Fasearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantenuaren esleipenerako. Hori errekurrizko bi hilabeteko epea dago eta orain, ekainaren 12an, amaitzen da.

2017ko maiatzaren 16ko Txosten juridikoa bidali zaizue, eta bertan, Ebazpena inpugnatzeko oinarriak jasotzen dira. Arrazoi horien artean, nagusiena, kontratuaren kalifikazioa eta izaera juridikoa dago, obra publikoko kontratua bezala dagoela esleitua, eta ez, Europako Legediak agintzen duen bezala. Kontzesio horretan ez da jasotzen “riesgo operacional” edo arrisku operazionala deitzen dena, eta ulertzen dugu Europako



Legediak argi uzten duela, arrisku hori, esleipena jasotzen duen enpresak hartu behar duela.

Azaldurikoa kontuan hartuz, kasu honetan Mankomunitatearen etorkizuna nolabait hipotekatzen denez, puntu honen hasieran adierazitako Kontsortzioko Lehendakariaren esleipenaren Ebazpena inpugnatzea proposatzen da.”

Tolosako Udaleko Ordezkariek: “Arrazoiak berdinak direnez, gure arrazoiak bozkatzerakoan ere berdina izango da, ezezkoa. Jakinda ez duzuela arrazoirik, jakinda ez duzuela zereginik, uste dugu diru publikoa interes politikoetarako erabiltzen jarraitzen dela.”

Lehendakariak: “Gure ikuspuntutik Mankomunitatea eta herritarren interesak defendatzea da. Azpiegitura honek, ez ditu herritarren interesak defendatzen, baizik eta, %1en interes ekonomikoak, %99ren interes ekonomiko, osasun eta beste batzuen aurka. Hemen, Mankomunitatearen interes ekonomikoak, oso handiak dira eta pena merezi du defendatzea. Beraz, interes politikoa ez, Mankomunitatearen, Mankomunitateko herri eta herritarren interesa izango litzateke.”

Ondoren, proposamena bozkatzeari ekin zaio, honako emaitzak atera direlarik:

-Proposamenaren alde: 18 boto (%53,73)

Aduna (%0,77), Alegia (%2,85), Alkiza (%0,61), Altzo (%0,65), Amezketa (%1,58), Andoain (%23,92), Anoeta (%3,09), Asteasu (%2,49), Berastegi (%1,72), Berrobi (%0,93), Gaztelu (%0,28), Hernialde (%0,57), Ibarra (%6,95), Ikaztegieta (%0,76), Larraul (%0,42), Lizartza (%1,05), Orexa (%0,20) eta Zizurkil (%4,89).

-Proposamenaren kontra: 2 boto (%33,64)

Irura (%2,73), Tolosa (%30,91)

-Abstentzioa: 2 boto (%0,74)

Albiztur (%0,53), Baliarrain (%0,21)

Bozketaren emaitza ikusirik, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Alsua ahalmentzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzak Orokorrak, 2017ko apirilaren 12an berri emandako, Gipuzkoako Ingurumen Gunearen diseinu, eraikuntza, finantzaketa, eragiketa eta mantenuaren esleipenaren erabakia inpugnatzeko. Baita ere ahalmentzea Tolosaldeko Mankomunitatearen interesak eta eskubideak defendatzeko beharrezko diren ekintzak eta

neurriak hartzeko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan eta GHK SAUk Ingurumen Gune horren inguruan hartzen dituzten erabakien eta ematen diren mugimenduen aurrean.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari eta GHK SAUri onartutakoa jakinaraztea.

5. 2016 ekitaldiko aurrekontuko kontu Orokorraren onespeneren proposamena.

Mankomunitateko Kontuhartzaileak honela azaldu du hitzez hitz: “2017ko apirilaren 26ko Tolosaldeko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrek, 2016 ekitaldiko kontu Orokorrari oniritzia eman zion, jendeaurrean erakustea onartuz.

2017ko maiatzaren 15ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta 15 egunez jendeaurrean egon ondoren, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Kontu Orokorra onartu eta gero, dokumentuaren kopia bat, Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko da”

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2016ko ekitaldiari dagokion Aurrekontu Orokorraren kontu Orokorra onartzea.

BIGARRENA.- Kontu Orokorra Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren esku jartzea bere kanpo-fiskalizaziorako, eta dokumentuaren kopia bat bidaltzea, hala eskatzen duenean.

6. Galde-erreguak.

Gai zerrendan barneratu ez diren honako gai hauek aipatu dira:

6.1. San Blas garbiguneko zerbitzuaren araudian ordutegi aldaketa egitearen onarpena

Teknikariak honela azaldu du hitzez hitz:“Apirilaren 26ko Batzarrean, Tolosaldeko Mankomunitateko garbigunetako harrera zerbitzuaren kontratazio eta esleipen prozesuan, Baldintza Pleguak onartu ziren. Baldintza horietan, Tolosako San Blas garbiguneko ordutegiaren aldaketa bat onartu zen. Baita ere, aipatu zen, begiratu egin beharko zela garbiguneko araudia, zeren eta ordutegi berri honek, araudian aldaketa egin beharra ekar bait zezakeen.

Tolosako Garbiguneko araudia begiratu ondoren ikusi da, zerbitzuaren ordutegiari dagokion puntuan aldaketa bat egin behar dela, ordutegi berria adieraziz. Jarraian, aurreko Batzarrean onartu zen ordutegia adierazten da:

- þAstelehenetik ostiralera: 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:30etara
- þLarunbatak: 9:00etatik 13:30etara
- þIgandeak eta jaiegunak: itxita
- þAbuztua: astelehenetik larunbatera 9:00etatik 13:30etara

Gaurko gai-zerrendan ez dago sartua puntu hau, baina denok ados bazaude eta ongi iruditzen bazaizue, proposatzen dizuet, Tolosako garbiguneko araudian egin behar den ordutegiaren aldaketa hori, gaurko Batzarrean onartzea.

Beraz, gaia aztertu ondoren, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2017ko apirilaren 26ko Batzarrean onartutako Baldintza Pleguekin bat, Tolosaldeko Mankomunitateko San Blas garbiguneko zerbitzua erregulatzen duen araudian ordutegiaren aldaketa egitea.

BIGARRENA.- Araudiaren aldaketa hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 15 egunez jendaurrean ikusgai egotea.

Hondakin bilketaren kudeaketa ereduaren hausnarketa

Tolosako Udaleko ordezkariak: “Azkenengo Batzarrean Sporak egindako kostu azterketari buruzko hausnarketa egiteko gelditu ginen. Hori, lehenbailehen jarri beharko genuke martxan, eta aldi berean, Tolosako Udaletxetik pleguak martxan jartzeko eskatu genuen.”

Lehendakariak: “Hausnarketa egiteko taldearena jada martxan dago, ziur aski ostegun honetan lehenengo bilera izango da. Aurreko Batzarrean hitz egin zen taldetxo eragile bat egiteko, eskualdean dauden alderdi ezberdinetako ordezkariekin eta independenteekin ere bai, etorkizunean Mankomunitatearen funtzionamendua eta orokorrean gai ezberdinak hausnartzeko.

Basearen gaia ere lantzen hasi behar da eta horretarako egokia iruditzen zait beste Mankomunitate batzuen baseak ikustera joatea. Bi adibide jartzeagatik, Sasietakoa eta Debagoienakoa. Batetik, Sasieta, gertu dagoelako, eta bestetik, Debagoiena, Mankomunitate eredu bezala interesgarria izan daitekeelako, zeren eta hondakin Mankomunitatea izateaz gain, zerbitzuen Mankomunitatea ere badelako. Ziur aski, hurrengo asteetan bisitaren bat egin beharko dugu, hausnarketarekin jarraitzen dugun bitartean. Norbaitek interesa baldin badauka etortzeko, komentatuko zaizue noiz egingo dugun irteera ikustera joateko.”

Ardi-ilearen kudeaketa

Berastegiko Udaleko ordezkariak: “ Herritarrak arazo batekin ari dira aurkitzen, ez dakite nora eraman edo zer egin ardi ilearekin. Ez dakit, Mankomunitatearen bidez bilketa hori egiteko aukera egongo litzakeen, eskualdean ba ote dagoen horren beharrik edo zer egin daitekeen horren inguruan, nolabait irtenbide bat aurkitzeko eta erantzun bat emateko herritarrei.”

Teknikariak: “Guri ere egin digute kontsulta honen inguruan. Hemen, bi gauz bereiztu behar dira, batetik, ardi ilea bakarrik den, hau da, artzaiek ardiei moztutzerakoan jasotzen duten ilea, edo bestetik, larru eta guzti den ile hori. Bigarren kasu hau, Tolosako hiltegia kontsultatu dugu eta esan ziguten, nahiz eta, partikularrak izan, aukera egon zitekeela larru eta guzti hiltegia eramateko, egun jakin batzutan. Hau dena hitzez bakarrik esan digute, baina, lehenengo kontaktua behintzat hori izan da.

Lehenengo kasuari buruz, inerteen zabortegean ile hori jasotzeko aukera ba ote dagoen galdetu dugu, zeren baiezkoa izango balitz, uste dut garbigunean zuzenean jaso ahal izango genukeela, zeren eta, garbigunetik Mutiloako zabortegeira garraioa egiten dugu. Hala ere, oraindik lotu gabe dago, erantzunaren zain bait gaude.”

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko 19:55ak direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA